

Joanen ilargia



Teatre Nu antzerki konpainiaren ikuskizuna, Carme Solé Vendrell-ek idatzi eta marrazkiz irudiztatutako *Joanen ilargia* ipuinean oinarritua.

Aurkezpena

Orain aurkezten dizuegun ikuskizun hau Carme Solé Vendrell-ek 1982. urtean idatzi eta marrazkiz irudiztatutako ipuin batean oinarritua dago. Askotan irakurri genuen ipuin hori haurretan, eta ipuina agertokian erakustea erabaki dugu orain, handitan.

Ipuinaren gure bertsio honetan, gure asmoa ez da izan liburuko irudiak bere horretan kopiatzea, irudiok erakusten digutena antzerki bidez transmititzea baizik. Aita gaixorik duen eta haren bizia salbatu behar duen haur batek sentitzen dituen emozioez hitz egiten digu *Joanen ilargia* ipuinak. Ipuina irakurtzean, hitzen bidez, eta bereziki irudien bidez iristen zaizkigu guri emozio horiek. Irudi horiek eta beroriek kontaktzen dizkiguten istorioak gidaritzat harturik egin dugu guk gure lana, ipuinaren espiritua fideltasunez eta gaurkotasunez transmititzeko egilearen lan plastikoa oinarritzkoa izan den sormen prozesu baten barruan.

Prozesu hau guztia akuilu handia izan da aspaldidanik irudiak, hitzak eta txotxongiloak elkartzuz lan egiten duen antzerki talde honetzat.

Fitxa artistikoa

Ipuinaren egokitzapena: Teatre Nu

Antzerki zuzendaria: Víctor Borràs

Antzezleak: Núria Crosas eta Clara Galí

Ipuinaren euskararako itzulpena: Asun Garikano

Euskara irakaslea: Antton Olano Irurtia

Eszenografiaren diseinua: Teatre Nu

Txotxongilo-egilea: Teatre Nu

Txotxongilo-buruen eta ilargiaren egilea: Carme Solé

Eszenografiaren eta txotxongiloen pintura eta bukalana:

Carme Solé

Eszenografiaren eraikuntza: Jaume Piera eta Joan Hervàs

Jantzien egilea: Teresa Solà

Argiak eta soinu-efektuak: Gerard Custey

“La Lluna d’en Joan” musika-lana: Jaume Escala

“La Lluna d’en Joan” musika-lanaren bertsioak: Oriol Canals eta

Ricky Falkner

Ikuskizunaren beste musika-lanak: Oriol Canals eta Ricky Falkner

Ekoizpena eta banaketa: Maria Hervàs

Ekoizpen laguntzailea: Mercè Hervàs

Sinopsis



Aita gaixorik duen eta haren bizia salbatu behar duen haur batek dituen emoziez hitz egiten digu *Joanen ilargia* ikuskizunak. Joan uharte batean bizi da bere aita arrantzalearekin. Zoriontsu bizi dira biak elkarrekin, baina ekaitz-gau batean, itsas kolpe batek osasuna kendu dio Joanen aitari...

Ikuskizuna zein adin-talderi zuzendua dagoen

Publiko orokorrari eta familiei eskainitako saioen kasuan: 3 urtetik gorako haur guztiei.

Eskola-taldeei eskainitako saioen kasuan: Lehen Hezkuntzan dihardutenei bereziki.

Eskertza

Proiektu hau aurrera eramaten lagundu diguten guztiei, gure familiei, lagunei, eta istorioak kontatzeko artea maitatzen erakutsi diguten guzti-guztiei eskaini nahi diegu ikuskizun hau.

Harremanetarako pertsona

Maria Hervàs i Solà / Mercè Hervàs Martínez

Telefona: 93 805 08 63 / Eskuko telefona Maria: 677519625

Posta kutxa: 207, 08700 Igualada (Barcelona)

<http://www.teatrenu.com> teatrenu@teatrenu.com

Fitxa teknikoa



Agertokia

Agertokiaren neurriak:

Zabalera: 8 m. **Sakonera:** 6m. **Altuera:** 4 m.

Kamera beltza (hondo + hankak): bai.

Muntatzeko denbora: 4 ordu, gutxi gorabehera.

Desmuntatzeko denbora: 2 ordu.

Argi ekipoa

Kontrol-mahaia: Digital.

Erregulazio-ekipoa: 24 kanal dimer, 2 sarrera kanal bakoitzeko, DMX digital 2500 W irteera kanal bakoitzeko.

Proiektoreak: KW 1-eko 11 PC, 1 KW 1-eko ERREKORTE BAT, bi PAR 64, KW 1-eko PANORAMA ASIMETRIKO bat.

Potentzia: 24.000 w.

Indar puntua: 380 v (hiru fase eta neutroa).

Soinu ekipoa:

Mahaiaren ezaugarriak: Makie mahaia, 12 kanalekoa.

PA sarrera eta irteera kopurua: 2 irteera eta zubia egindako 4 PA.

Erreproduzio-ekipoa: 2 minidisko.

Mikrofonoak: 2 mikrofono harigabe (antzerki taldeak ekarriko ditu).

Indar puntua: 220 v.

Kritikak

Andreu Sotorra



<http://www.andreusotorra.com/teatre/clipdeteatre/indexcritiques.html>

CLIP DE TEATRE [Bartzelonako Kultura Garaikidearen Zentroko Auditoriuma]

**Izenburua: «Joanen ilargia». Egilea: Carme Solé Vendrell.
Egokitzapena: Teatre Nu. Antzezleak: Núria Crosas eta
Francesc Mas. Eszeneografia eta txotxongiloak: Teatre Nu.
Txotxongilo buruen eta ilargien egilea, eszenografiaren
pintura eta bukalana: Carme Solé Vendrell. Jantziak: Teresa
Solà. 'Joanen ilargia' musika lana: Jaume Escala. Beste musika
lanak: Oriol Canals eta Ricky Falkner. Zuzendaria: Víctor
Borràs. Bartzelonan, Haur Liburuaren Nazioarteko Astearen
barruan, Bartzelonako Kultura Garaikidearen Zentroko
Auditoriumean (CCCB), 2007ko urtarrilaren 26an.**

1982. urtean idatzi, irudiz hornitu eta argitaratu zuen Carme Solé Vendrell irudigileak "Joanen ilargia" ipuina. Herri honetan oso geldiro doa dena, eta hogeita bost urte igaro behar izan dira obra hau, zorrotasun eta zehaztasun osoz landua hasiera-hasieratik, beste erregistro batzuetara molda daitekeela erakusteko. Ipuina, berez, bere ohiko euskarrian, munduan barrena harrotasunez erakus daitekeen horietakoa bada —are gehiago Frankurt-eko Azokaren

babespean ospatzen ari den haur liburuen nazioarteko aste honen barruan—, antzerki-egokitzapen honek ere mugarik gabeko ikusizuna izateko osagai guztiak ditu, hizkuntzaren mugak erraz gainditu baitaitezke.

Teatre Nu antzerki taldeak egin du ipuinaren egokitzapena, eta lan horretan ez da antzezle pare bat agertoki gainean ipuina kontatzen jartzera mugatu. Aitzitik, agertokiak eskaintzen dizkion elementu guztiak baliatu ditu horretarako: hizkuntza plastikoa, musika, gorputz adierazmena, soinua, argia, kolorea, eszenografia...

Antzerki lan honen bi emanaldi baino ez ditu eskaini Bartzelonako Kultura Garaikidearen Zentroak, baina lanak erraz lor lezake, lehenago edo geroago, kortesiazko emanaldi horietan lortu duena baino arrakasta handiagoa, guztientzako moduko programazio batean txertatzea lortuz gero: Kataluniako Antzoki Nazionalean — oraingoz ez da posible izan ordea—, edota Teatro Polioraman, adibidez, baina baita areto alternatibo gehienetan ere, jakina.

'Joanen ilargia' ipuinak arrantzale baten eta haren semearen istorioa kontatzen digu. Aitak osasuna galdu du itsasoan. Haurrak, Ilargia lagun duela, itsas hondotik osasun ahuldua berreskuratu eta aitari galdutako bizitasuna itzultzea lortzen du. Nork ez luke nahi egunen batean ilargia saski batean sartzea lortu? Eta antzerkian dena posible denez, saio honetan ez da falta ez ilargirik ez saskirik.

Oso istorio sinplea da, itxuraz, baina antzerki taldeak azken punturaino landu eta ahalik eta etekinik handiena ateratzea lortu du. Aipagarria benetan pertsonaia beraren txotxongilo handien eta txikien bidez nola transmititzen diguten urruntasuna eta hurbiltasuna, txikitasuna eta handitasuna, kontalariek kontatzen dutenaren arabera. Hala txotxongiloak nola ilargia edo agertokiko beste elementu batzuk —ipuinaren idazle-marraskilari beraren laguntzaz

eginak— jatorrizko liburuko irudiekiko errespetu osoz egin dira. Bestalde, musika lan egoki bati esker, ikusmenaren bidez ez ezik, hots banda, onomatopeia, edo musika iradokizunen bidez ere ederki jasotzen da ipuinaren edukia, halako moduan non ikusle gazteenak musikara hurbildu nahi dituen programazio baterako ere egokia izan baiteke soinu-lan hau.

Ikuskizunak ia ordubete irauten du —aldaketa bat edo beste egin liteke une batzuetako geldotasuna saihestu eta obraren iraupena minutu gutxi batzuetan laburtzeko— eta adin guztientzat egokiak diren ikuskizun onenen dohainez hornitua dago. Nagsuiek beren interpretazio ahalmen sakonagoaz jarraitzen diote ipuinaren hariari, eta gazteenak, berriz, liluratuta geratzen dira pertsonaiarekin —orain handia orain txikia, atzera berriz handia—, baina arazorik gabe ulertzen dute ipuina, Carme Solé Vendrell-en testuak eguneroko bizimodua erabat hankaz goratu arren: izan ere, normalean haurrak baitira ohean gaixorik egoten direnak eta gurasoak haiek artatzen dituztenak.

Kasu honetan, ordea, haurrak zaintzen du aita, eta asmamena zorroztu eta ausardiaz jokatu behar du horretarako, eta bizia arriskuan jarri, itsas hondoraino murgil eginez, Ilargia lagun duela, ez Gizarte Segurantzak ez inongo Mutualitate Pribatuk inoiz lortu izango ez zutena lortzeko. A, eta itzarote listarik gabe! Kontuan hartu beharko luke formula fantastiko hau Osasun kontseilariak, eta baita, bide batez, antzoki publikoen arduradunek ere, honako hau bezalako ikuskizun beroak eta sentiberak ez daitezen salbuespen izan kultur negute luze honen erdian.

OPINIÓ

Alba Llobet

La lluna captivadora d'en Joan

Programar un espectacle per a tots els públics un dissabte a la tarda és una proposta que retoca els costums dels qui estan acostumats a veure teatre infantil, ja que la majoria d'espectacles per a nens tenen cabuda diumenge al matí. Malgrat això però, la gran quantitat d'adults i infants que van omplir de gom a gom, dissabte passat, el Teatre Municipal l'Ateneu d'Igualada van demostrar que no es volien perdre la darrena obra d'una companyia que ja s'ha fet un nom a la nostra ciutat: *La lluna d'en Joan* dels igualadins Teatre Nu.

Entre el públic assistent a l'Ateneu un de molt exigent, l'infantil, que omplia la sala del teatre de crits i moviment. No va caldre, però, cap parlament previ per apaivagar el xivarri del públic: un cop els llums de sala apagats, tant grans com petits van centrar totes les mirades en l'escenari. I així ho van fer durant cinquanta mi-

MANUEL HIDALGO



Una escena de l'obra de Teatre Nu

nuts en el transcurs dels quals era agradable observar com els nens i les nenes que omplien les butaques de l'Ateneu quedaven captivats pel que passava a escena. I és que si hi ha un aspecte que caracteritza aquesta companyia és exactament aquest: el fet d'aconseguir que els infants que assisteixen als seus espectacles els vegin i els segueixin.

La clau de tot plegat és a escena, on dos actors-titellaires –Francesc Mas i Núria Crosas–

ens presenten la història d'en Joan, un nen que inicia una aventura per terres i indrets desconeguts per tal de salvar la vida del seu pare. L'obra, basada en un conte il·lustrat de Carme Solé Vendrell, combina frases breus que, acompanyades de titelles, actors i imatges de gran bellesa plàstica, fan que la història es carregui de significat i arribi als infants d'una manera clara i entenedora.

Tot plegat ens condueix al desenllaç final, quan toca aixecar-se de la butaca, però –aquesta vegada sí– amb una sensació ben dolça i amb la impressió d'haver retornat a aquells moments de la infància en què la mare ens llegia contes i la nostra ment els dibuixava. Quan surto del teatre respiro tranquil·la mentre em reconforta constatar que encara hi ha companyies que es dediquen a fer espectacles de qualitat per a tots els públics.

Joanen ilargi liluragarria

Adin guztientzako ikuskizun bat larunbat arratsalde batean eskaintzeak aldaketa nabarmena dakar haurrentzako antzerkia ikustera joaten direnen ohituretan, haurrentzako ikuskizun gehien-gehienak igande goizetan eskaintzen direnez. Hala eta guztiz ere, joan den larunbatean, Igualadako Teatre Municipal de l'Ateneu lepo bete zen gure hirian dagoeneko oso izen ona duen antzerki talde baten azken lana ikusi nahi zuten haur, gazte eta helduz. Antzerki taldearen izena Teatre Nu da eta obrarena: Joanen Ilargia.

Ikusleen artean, antzokian izan daitekeen ikuslerik zorrotzenak zeuden, haurrak alegia, zeinek garrasiz eta bizitasunez bete baitzuten aretoa. Ez zen ordea inoren hitzaldirik behar izan jendartean sortutako ardaila isiltzeko: argiak itzali orduko, bai hurrek bai helduek aurreko agertokian zorrotzu zituzten begiak. Eta hala egon ziren hurrengo berrogeita hamar minututan, begiak agertokian zorrotzuta. Atsegina zen antzokiko eserleku guztiak betetzen zituzten neska-mutilak agertokian gertatzen zenarekin erabat liluratuta ikustea. Izan ere, hauxe baita antzerki talde hau besteetatik bereizten duen ezaugarri nagusia: haien ikuskizunak ikustera joaten diren neska-mutil guztien arreta osoa bereganatzea.

Agertokian dago gakoa. Bi antzezle-txotxongilolarik —Frances Mas eta Núria Crosas— haur baten istorioa kontatzen digute: aitaren bizia salbatzearren leku ezezagunetara menturatzen den Joan izeneko mutil baten istorioa. Obra hau Carme Solé Vendrell-ek idatzi eta irudiz hornitutako ipuin batean oinarrituta dago. Testuaren esaldi laburrek, txotxongilo, antzezle eta edertasun plastiko nabarmeneko irudien laguntzarekin, esanahiz betetzen dute istorioa, modu erraz eta ulergarri batean.

Elementu horiek guztiek lagun egiten digu amaieraraino. Eserlektik altxatzeko orduan, baina, oraingoan bai, amak ipuinak irakurri eta guk kontakizunak iradokitako irudiak gogoan marratzen genituen garaira itzuli garelako sentipen gozoarekin altxatu gara. Antzokitik irtetean, sakon hartu dut arnasa, lasaiturik, adin guztientzako eta kalitate handiko ikuskizunak prestatzen dituzten antzerki taldeak egon, oraindik badaudela egiaztatu ondoren.

La Veu de l'Anoia

2 marzo 2007



Emocions, del conte a l'escenari

Dissabte passat el Teatre Municipal l'Ateneu acollí la posada en escena d'una nova producció, de la companyia igualadina Teatre Nu. Es tracta de l'adaptació teatral -amb titelles- del conte "La lluna d'en Joan" publicat a inicis dels vuitanta per Carme Solé i Vendrell, una de les il·lustradores més importants del nostre país. La història i l'imaginari creats per la il·lustradora esdevenen un marc ideal per a la companyia igualadina en la seva pretensió de crear espectacles que conjuguin el treball escènic, l'expressió plàstica (dins la qual els titelles esdevenen un instrument essencial) amb la voluntat d'arribar a emocionar al públic, especialment al públic infantil. Si la lectura del conte va arribar a emocionar els lectors, a través de les paraules i les il·lustracions de l'autora, aquest passat dissabte, i de la mà dels titelles i de la parella de joves actors Núria Crosas i Francesc Mas, l'emoció va estendre's per les butaques del teatre municipal igualadí (Foto: Joan Guasch)

Emozioak, ipuinetik agertokira

Igualadako Teatre Nu antzerki taldeak lan berri bat aurkeztu zigun joan den larunbatean bertako Teatre Municipal l'Ateneu antzokian: Carme Solé i Vendrell-ek, gure herriko irudigile garrantzitsuenetako batek laurogeigarrenetan argitaratutako "Joanen ilargia" ipuinaren antzerkirako egokitzapena, hain zuzen. Carme Solé i Vendrell-ek sortu zuen istorio eta irudizko mundua aitzakia ezin hobe dira Igualadako antzerki talde honek duen helburuarentzat: alegia, antzerki lana, adierazpide plastikoa (eta horren barruan txotxongiloek funtsezko zeregina betetzen dute), eta ikus-entzuleak (haurrak batez ere) hunkitzeko borondatea bateratzen dituzten ikuskizunak sortzea. Carme Solé i Vendrell-ek idatzitako hitzen eta egindako irudien bidez, ipuinak irakurtzailearengan eragin zuen zirrara hura liburutik Igualadako Teatre Municipal de l'Ateneu-raino zabaldu zen, beraz, joan den larunbatean, txotxongiloen eta Núria Crosas eta Francesc Mas antzezle gazte parearen eskutik.

Teatre Nu antzerki konpainia

Teatre Nu, adin guztientzako antzerki konpainia egonkorra.

Gure konpainia 1991n sortu zen eta lehenengo urteetan, gure lehen ikuskizunak sortzeaz batera, prestakuntza artistikoa jaso genuen Bartzelonako Institut del Teatre antzerki eskolan. *L'Odisea* (Odisea), *Tot va bé si acaba bé* (Ondo dago, ondo bukatzen dena), edo *La Pau Perpètua* (Bake iraunkorra) lanekin eman genituen gure lehen urratsak antzerki konpainia sortzeko bidean.

1999. urtetik aurrera, gure konpainia talde profesional bihurtu zen, helburu jakin batekin: hurrei zuzendutako obrak sortzea eta eskaintzea.

Gure ikuskizunetan antzerki lana, ikus-antzerkia eta txotxongilo lana elkartzen dira. Guri haurrentzako eta helduentzako istorioak kontatzea gustatzen zaigu, eta gure borondate bera duten edo izan duten idazleen testuak erabiltzen ditugu horretarako.

2000. urtean gure konpainiak *L'home just* (Gizon zuzen bat) izeneko ikuskizuna estreinatu zuen, idazle batzuek han eta hemen bildutako ipuin herrikoietatik abiatuta justiziaz eta heriotzaz gogoeta egiten duen obra. Ikuskizunak Xarxa-Sgae haur eta gazteentzako antzerki saria jaso zuen.

2002. urtean, berriz, konpainiak *Bolavá detective* (Bolava detekbitea) obra estreinatu zuen, eleberri beltzaren munduari buruzko parodia jostagarria, Josep Maria Folch i Torres idazle katalanaren testu batean oinarritua. Idazle horrek hurrei zuzendutako lan asko idatzi zituen XX. mendearen lehen erdian.

Hurrengo urtean, konpainiak *Els nens de la meva escala (Nire eskailerako haurrak)* izeneko obra aurkeztu zuen, Joan Salvat Papasseit poeta katalanaren testua, haurtzaroa eta bizi poza goraiatzeko idatzia. Poetak, gaixorik eta etxetik urrun, bere bi alaba txikiei idatzitako hitzek haurraren aurkikuntza bakoitzarekiko mirespena kutsatu zigun guztioi.

2004. urtean, konpainiak bere lehen koprodukzioa estreinatu zuen: *La Ventafocs (tal vez sí, tal vez no)* (Errauskine (agian bai, agian ez)). Kataluniako Antzerki Nazionalak Erruskinaren ipuinaren egokitzapena egiteko eskatu zion Josep Maria Benet i Jornet idazleari, eta guk antzeztu genuen. Tradizioan murgilduta, Perrault edo Grimm anaien bertsio ezagunetatik urrun dagoen Errauskine baten berri eman digu ikuskizunak. Aukera on bat istorio ezagun horren beste bertsio bat ezagutzeko.

2007. urteko urtarrilean, konpainiak azken lana estreinatu zuen: *La Luna de Juan* (Joanen ilargia), Carme Solé Vendrell-en liburu batean oinarritutako ikuskizuna. Ipuinaren bertsio honen bidez, gure antzerki taldeak antzerki bidez transmititu nahi izan du liburuko irudiek erakusten digutena. Lan hau akuilu handia izan da urteetan irudi, hitz eta txotxongiloekin batera lan egiten jardun duen konpainia honentzat.

Teatre Nu konpainiaren helburu nagusia hauxe baino ez baita: hurrek antzerkiaz eta istorioez gozatzea, ongi pasatzea, eta beldurra pasatzea, barre egitea, eta gogoeta egitea, negar egitea, eta amets egitea..., haurrak hunkiaraztea, azken batean.

Teatre Nu